

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5231

AGINDUA, 2022ko azaroaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez deklaritzen baita Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeak ez duela parte hartuko 2022ko deialdiko Elkartek programaren II. fasean, eta erabakitzen baita Industriako sailburuordeak ordezkatu duela hura ebazpen lanetan.

Otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du, eta haren lehenengo xedapen gehigarrian, ordezkapenen araubideari buruzkoan, honako hau ezartzen du: dekretu horretan aipatzen diren organoetako titularren postua hutsik badago, titularra kanpoan edo gaixorik badago, bai eta abstentzioa edo errekusazioa deklaratu bada ere, honako ordezkapen-arau hauek beteko dira, titularrak berariazko ebazpenik eman ezean:

«a) Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea Industriako sailburuordeak ordezkatu du, eta alderantziz.»

2022ko azaroaren 9an, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeak jakinarazi zuen ez duela parte hartuko 2022ko deialdiko Elkartek programaren II. fasea ebazten, uste baitu interes-gatazka egon daitekeela, Kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 10. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Deklaratzea Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeak ez duela parte hartuko 2022ko deialdiko Elkartek programaren II. fasea ebazten, eta Industriako sailburuordeak ordezkatu duela hura.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 15a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.